Pentsalari bat desagertu da

88 urte zituela, atzo goizean zendu zen Donostian Karlos Santamaria pentsalaria. Haren aldeko hileta elizkizunak gaur arratsaldean, 17:30etan, egingo dira Donostiako Artzain Onaren katedralean. Santamariaren heriotzak erreakzio ugari eragin ditu.

Karlos Santamaria, familiak utzitako argazki batean.

Ramon Labaien ◆ Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu ohia

«Argi bat izan zen guretzat»

Karlos Santamaria 1948an ezagutu nuen. Gure belaunaldiarentzat Santamaria maisu bat izan zen, ez bakarrik zientzia gaietan eta sortzaile bezala; baita politika eta erlijio kontuetan, bera katoliko sakona baitzen. Berak erakutsi zigun pentsatzen, oso gutxi pentsatzen zen mundu hartan, diktadurapean eta dena ilun zegoen garai hartan. Don Karlos argi bat izan zen guretzat. Gero, diktadura erori zenean elkarrekin jardun genuen politikan eta herri honen sorbidean. Karlosek paper handia bete zuen lan horretan, bai herrian eta bai belaunaldi berezi batean, gaur egun gizarte hau gidatzen ari den belaunaldian. Zuzenean jotzen zuen harira. Berarengandik ponderazioaren eta orekaren zentzua ikasi behar dugu. Gaur egun ez da erraza, baina hura beti bizitu zen bere sinismenen akordioan, beti egia eta argia bilatzen.

Carlos Garaikoetxea ◆ Eusko Alkartasunako lehendakaria

«Benetako humanista»

Aspaldi ezagutu nuen Karlos Santamaria, baina batez ere Eusko Kontseilu Nagusian, behin-behineko gobernuan, lehendakari nintzela. Orduan nire Hezkuntza kontseilari izan zen. Geroztik, azken urteetan batez ere, Eusko Alkartasunako afiliatua izan da. Asko estimatzen nuen bere izaera. Euskal kulturaren ordezkari nabarmenetakoa izan da, benetako humanista bat, zentzu sakonean. Horregatik guztiz errespetatu dute sektore guztietan. Abangoardian mugitu zen eta horren benetako ordezkari bat izan zen, arlo guztietan. Eusko Kontseilu Nagusia konzentraziozko gobernu bat zen eta batzuetan onartu behar zen testu edo idazki bat guztien artean. Oso adierazgarria zen denok ados geundela Karlos arduratzen bazen testu hori prestatzeaz.

Antonio Campos ◆ Ikastolen Elkarteko lehendakaria

«Gizaldi honetako euskaldun garrantzitsuenetako bat da»

Duela urte mordo bat ezagutzen nuen, Karlos Santamariak lotura oso estua izan baitu ikastolen mugimenduarekin. Hala ere, zoritxarrez tratu gutxi izan nuen berarekin, aukera gutxi izan nuen berarekin hitz egiteko. Ikastolak martxan jarri zirenean Karlos Santamaria izen zen irakaskuntza euskaldunaren utopia horretan sinistu zuten lagunetako bat eta uste zuena martxan jartzen ez bazen euskara bera zalantzan egongo zela. Hasiera hartan han zegoen, baina beste momentu oso garrantzitsu batean ere izan zen, autonomia aurreko garaian. Orduan ikastolek konbenio oso garrantzitsua lortu zuten Madrilen eta subentzioak jasotzen hasi ginen. Ezinbesteko lorpena izan zen ikastolentzat, bestela aurrera jarraitzea ezinezkoa izango baitzen, eta lorpen horretan funtsezko lan handia egin zuen Karlos Santamariak. Subentzioak lortzeko eskola publiko ez estatal figura eman zitzaien ikastolei eta horretan ere zeresana izan zuen. Gizaldi honetako euskaldun garrantzitsuenetako bat da eta norbait imitatu behar badugu, hor daukagu Karlos Santamaria.

Mari Karmen Garmendia ◆ EAEko Kultura sailburua

«Gorputzez txikia; espirituz, kemenez eta nortasunez handia»

Ikaragarri estimatu, mirestu eta maite nuen gizona zen. 1964an ezagutu nuen ikastoletako andereñoen erresidentzia sortu zutenean. Aurrenengo egunetik han izan nintzen eta Karlos sortzaileetako bat izan zen. Gogoan dut 1964ko urrian 6an Manterola kaleko andereñoen erresidentziara iritsi zenekoa. Ordura arte *La Voz de España*-n irakurtzen nituen bere artikuluak. Hain gertutik ezagutzea niretzat izugarria izan zen. Bere pentsamenduaren berri batez ere Rikardo Arregiren bitartez izan nuen. Gauza askotan aitzindaria, jakintsua, apala, leiala, konpromezu maila handikoa eta erreferentzi bat izan da, beti izugarrizko gizalegez jokatu duena. Ekarpen asko egin dizkigu: bere jakinduria zabala, bere fede bizitzaren ondorioz izan duen jokabidea eta Euskal Herriarekiko maitasuna, eta bere maila horretatik beti izan duen konpromezu eta zerbitzu jarrera. Gure belaunaldiko jendea askok Karlos Santamariari zor dio aurrera begiratzea sustraiei uko egin gabe, traszendentziaren zentzua eta bere zabaltasuna. Gorputzez gizon txikia zen, baina espirituz, kemenez eta nortasunez ikaragarri handia.

Angel Garcia Ronda ◆ Eusko Kontseilu Nagusiko kontseilaria

«Lanean urratsez urrats aurrera egitea gustatzen zitzaion»

Izugarrizko interesa zuen gizakiari zegozkion arlo guztiak ezagutzeko. Interes horren ondorioz murgildu zen diktadura garaian klandestinitateko elkarte sozio-politiko askotan. Kultura zabala zuen.

Eusko Kontseilu Nagusiaren garaian nabarmendu egiten zen bere esperientzia giza harremanetan; baita bere borondatea lana egin eta aurrera egiteko ere.. Bere ideiak sutsu defendatzen bazituen ere, gaitasun handia zuen akordioa aukerak azaltzeko konzentrazio gobernu hartan.

Ramon Rubial ◆ PSOEko lehendakaria

«Gogoratzeko modukoa da egin zuen lan zail eta neketsua»

Karlos-Santamariaren heriotza asko sentitu dut eta nire elkartasuna azaldu nahi diot bere familiari. Gogoratzeko modukoa da Karlosek Euskal Herriko prozesu autonomikoaren hasieran egin zuen lan zail eta neketsua.

Imanol Murua ◆ Zarauzko alkatea

«Itzalean eta isilean izugarrizko lan pila egin du»

Karlos oso gazte nintzela ezagutu nuen. Zarautzen antolatzen genituen hitzaldi batzuetan. Dezentetan etorri zen Zarautzera gazteei hitzaldiak ematera kultura eta kristautasunari buruz. Garai hartan, frankismoan, oso prestijio handia zuen eta oso kezkatua zegoen giza eskubideen kontuarekin. Frankismo garaian aurpegia ematen zuen.

Gipuzkoako Diputatu Nagusia nintzela urrezko domina eman genion 1991n eta seme kuttun izendatu genuen. Aurretik askotan egoten nintzen berarekin, Zarautzera etortzen baitzen uda pasatzera. Paseatzea asko gustatzen zitzaion eta askotan hitz egiten genuen. Atsegina eta jakintsua zen. Donostiako Centro de Estudios Cientificos sortu zuen, EHUren bultzaitzaileetako bat izan zen, Santo Tomas Lizeoaren sortzaileetakoa... Bere kurrikuluma kaleratu genuenean harrituta geratu nintzen bere bizitzan zenbat gauza egin zituen ikusita. Pentsalari sakona zen eta geldirik egon ezin duen horietakoa. Non ez du idatzi *Karlos Santamariak!*

Jose Luis Alvarez Enparantza ◆ Idazlea

«Bagenekien lider bat izan zitekeela»

Karlos Santamaria 1946an ezagutu nuen nik. Garai hartan, urtero Parisera joaten zen. Gutxienez astebete edota bi Parisen igaro behar izaten zuela esaten zuen, eta hara joaten zen, berak zioen bezala, «haizea hartzera», bestela hemen ito egiten zela eta. Beti leku berberera joaten zen.

Gure ikasle garaiko sorpresa handi bat, abertzalea zela sumatu genuenean izan zen. Beti ezkutatzen zuen, baina azkenean jakin genuen hala zela, eta baita Jose Antonio Agirrerekin harremanak zituela ere. Garai hartan ezin zen garbi esan, baina sumatzen genuen, eta guretzat oso sorpresa ona izan zen, honelako kategoria handiko pertsona bat abertzalea zela ikustea, Agirrerekin harremanak zituena...

Gero, bagenekien bazuela harremana jende abertzalearekin, bera ere abertzalea zela, eta baita lider bat izan zitekeela ere. Berak beti zioen familia handia zuela, eta egia zen, zortzi bat seme-alaba zituelako, eta halako batean esan genion, «begira, hor duzu Telesforo Monzon Iparraldean, eta zu izan zaitezke Hegoaldean bera Iparraldean dena». Gogoan dut bere apaltasunarekin esan zigula Telesforo Monzon miresten zuela, baina ez zuela kuraiarik, adorerik. Telesforo Monzonek egiten zuena egiteko. Abertzaletasunaren borrokan argi eta garbi sartzeko proposatzen genion, buruzagitza postu bat hartuz nolabait, baina adorerik ez zuela esan zigun. Oso gizon prestua zen. Bazekien oso ondo non zegoen eta non ezin zitekeen egon. Gazteen alde zegoela, baina ez zela inondik ere ezkerreko gizona, eta ez zela posible bera ezkerreko gizon bezala agertzea, ezin zuela berak bandera hori hartu.

Karmele Esnal ◆ Santo Tomas lizeoko irakasle ohia

«Oso askea zen, aurrerakoia»

Berak eman zidan lekua Santo Tomas lizeoan. Bera zuzendaria zen orduan. Gizon zoragarria zen. Oso jakintsua, eta jakintsu bezain beste irekia pedagogia mailan. Irakasleak oso ongi ulertzen zituen, eta askatasun handia ematen zien. Nire esku utzi zuen ikastola guztia. Oso aurrerakoia zen. Irakasle munduan ezagutu dudan aurrerakoiena. Handik urte batzuetara ikastetxea kooperatiba bezala antolatzeko zituen ideiak, irakasleen eskutan ikastola nola utzi zuen...

Laguntza izugarria eman zidaten, berak eta Joxe Migel Zumalabek, inspektorea etortzen zenean ere, inoiz ez baininduten bakarrik uzten inspektoreen aurrean. Niretzat beti Don Karlos izan zen. Euskal Herrian izan den gizonik handienetako bat izan dela uste dut, nire uste apalean betiere. Jakituna, eta aldi berean apala, edonorengana hurbiltzen zena, eta oso aurrerakoia. Aurreiritzi zalea ez zen, jendearen bizitza eta ideologian ez zen sartzen. Oso askea zen, aurrerakoia.